

noaia

**GuraSOS: “Zaldibar
Zubietara dator”**

**Rosa Zubeldia: “Askok ez
dugu jakin hitanoa gure
seme-alabei transmititzen”**

**Elhuyar Solasaldiak:
Pandemiak utzi duena eta
ekar lezakeena, aztergai**

**Udajolasen izena emateko
epea astelehenean irekiko da**

USURBILGO HAUR ESKOLA



0 eta 3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA
2019, 2020 eta 2021 urteetan jaioetako haurrei zuzenduta

- MATRIKULA EPEA: Apirilaren 12tik 30era
- HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA: 7:30-16:30.
- EGUTEGIA: astelehenetik ostiralera. Iraila-uztaila.
- INFORMAZIOA ETA HITZORDUA: 943 374061 telefonoan
8:30etik 12:00etara
edo haureskola@udarregi.eus-en

Helbidea: Ugarte, 9 20170 USURBIL

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizuke, epea kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu.



Papera eta ontzi arinak
atez ate biltzeko poltsak:
eska itzazu udaletxean!

900 776 776 atezate@usurbil.eus  606 501 024

Albisteak iruditan

Erreferendumaren aldeko sinadura bilketak zabalik jarraitzen du

Martxan jarraitzen du oraindik Gure Esku Dagok abian jarritako erreferendumaren aldeko sinadura bilketa masiboak. Herritar talde batek bere atxikimendua eman dio #hamaikagara ekimenari eta beste hamaika sinadura lortzeko konpromisoa hartu du. Horietako bat izan nahi izanez gero, hamaikagara.eus atarian aukera dago oraindik ere horretarako.



Larunbat honetan, eguerdi partean, Usurbilgo frontoi inguruan izango dira sinadurak batzen.

Laburrean

Eremu laranjan segitzen du Usurbilek

Intzidentzia-tasa metatua ez da jaisten. Usurbilen ez da itxiera perimetralik ezarriko oraingoz, astelehen honetan ez zelako 400eko tasa gainditu. Datorren astelehenean 400eko intzidentzia-tasa gaindituko balitz, itxiera perimetrala ezarriko litzateke.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. "PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik", eskatzen du Udalak.

Inaxio Usarralderen omenezko bertso saioa

Gipuzkoako Gai-jartzaile Taldeak eta Lazkaoko Gerriko Kultur Elkarteak antolatatu dute ostiral honetako saioa. Arratsaldeko 19:00etan, Lazkaoko Aleria aretoan. Sarrerak, 10 eurotan, Gerriko liburu dendan edo labur.eus/inaxio web helbidean.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Gurpil gaindosia

Txikitan izeba-osaben kotxean joaten ginean, “Ikusi-makusi”ka jolasten ginen askotan, kotxe barruko zein kanpoko gauzetan arreta jarrita. Gerotik gure umeekin ere ibili izan gara eta, horrekin batera, jolas berriak ere ekarri dituzte, horietako bat “Bingo!”. Kilometroak markatzeko seinaleak ikustean “Bingo!” esan behar da eta lehendabizi esaten duenarentzat izaten da puntua. Adi-adi egotea eskatzen du, ustekabean agertu ohi baitira, erdi ezkutututa sarritan. Seinale txiki horien orde duela 40 urteko harri handiak baleude kilometroak markatzeko, errazagoa izango litzateke...

Halere, azkenaldian arrakasta handiagoa duen jolas batean murgiltzen gara Usurbildik Oriorako bidean abiatzen garenean: txirrindulariak kontatzera!! Larunbata edo igande goiza baldin bada, ez dugu ez aspertzeko eta ez lasaitzeko tarterik izaten. Hori da hori txirrindularien emana! Ezker-eskuin, norabide batean zein bestean, bata bestearen atzetik banaka, binaka edo taldeka. Bat, bi, bost, bederatzi, hamar, hamabi...!! Kaparotzetik Lasara, kilometro batean 31!!!! Aginagara iristerako 78!! Eta Oriora ailegatutakoan 112!! Umeak zoratzen, emoziona-



“Auto kopurua ez baldin bada jaisten eta txirrindulari kopuruak gora egiten baldin badu, soluzio zaileko panorama daukagu”.

AINHOA AZPIROTZ

“Pertsona bat autoz mugitzen baldin bada leku batetik bestera, tona bat mugitzeko adina energia behar da; aldiz, bizikletan erabiltzen den energia berriztagarria da, guk sortzen duguna”

tuta, arretarik galdu gabe denak kontatu nahian. Eta bitartean gidaria urduri, ez umeen aztoramenduagatik, gidatzeko zailtasunengatik baizik: Orioraino txirrindulari baten atzetik aurreratu gabe joateko gaizki, aurreratzeko ere gaizki kurbaz betetako eta ikuspen gutxiko errepide horretan...

Urduritasuna eta arriskua, bai autoan doazenentzat eta baita txirrindularientzat ere. Usurbildik Oriora 112 txirrindulari: 112 SOS larrialdietako

zenbakia da. Kasualitatea ote? Superstizioa agian? Ez dakigu, baina errepidea mezu bat ematen ari zaigula dirudi: hainbeste txirrindulari eta hainbeste kotxe, kamioi eta furgoneta aldi berean errepide horretan ez da segurua. Gehiegizkoa da. Neurritz gaineakoa. Auto kopurua ez baldin bada jaisten eta txirrindulari kopuruak gora egiten baldin badu, soluzio zaileko panorama daukagu.

Astean zehar egoera aldatu egiten da. Txirrindularien kontaketa apaldu egiten da –jolasa emozionanteagoa da asteburu goizetan–. Seguraski bizikletan ibiltzen diren horietako asko astean zehar lanera joango dira –kotxez– eta ez dira hainbeste ibiliko bizikletan. Horrek beste hausnarketa batera garamatza: bizikleta aisialdirako bakarrik erabiltzen al da? Asteburutan errepideak betetzen dituzten bizikletak astean ze-

har garaieetan geldirik egoten al dira?

Ingeniaria den lagun batek datu interesgarriak azaldu zizkigun duela gutxi: pertsona bat autoz mugitzen baldin bada leku batetik bestera, tona bat mugitzeko adina energia behar da, gehi erregaia, kutsadura eta gainerako ondorioak; aldiz, bizikletan erabiltzen den energia berriztagarria da, guk sortzen duguna. Gauzak horrela ikusita, zergatik ez erabili bizikletak astean zehar laneko joan-etorriak egiteko ere? Jada asteburutan ibiltzen dena entrenatuta egongo da eta alde horretatik ez du zailtasunik izango –eta nahi duenarentzat bizikleta elektrikoa ere aukera egokia izan liteke, tona bat mugitzeko baino askoz ere energia gutxiago behar dute eta–. Batzuk egiten dute jada, eta orokortuz gero, errepideetan bizikletak ugaritzea eta kotxeak gutxitzea lortuko litzateke akaso, errepideetako argazkia aldatuz. Ingurumenarentzat mesede, norberaren osasunarentzat ere bai, eta asteburutako gozamina astean zehar bermatua.

Badakit ez dela hain sinplea, horrek beste aldaketa asko eskatuko lituzkeela. Baina ezezkotan jarri aurretik, aukera eta ideia sortzailei lekua egin dakieke, eta zer ateratzen den ikusi.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapiain

Luis Aranalde

Komikia



Udala, Oinarrizko Lanbide Heziketa indartzearen alde

Udalen esku dauden Oinarrizko Lanbide Heziketa zentroak indartzeko neurriak hartzeari buruzko mozioa onartu zen martxoko ohiko plenoan. EH Bildu eta PSE-EEren babesak jaso zuen idatziak. EAJk abstentzioaren alde egin zuen, Eusko Jaurlaritzaren behin betiko dekretua ez delako oraindik argitaratu.



Hezkuntza Saila udalerriekin batera ari da lanean, hurrengo bost urteetan zerbitzuaren kudeaketa arautuko duen dekretua lantzen.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila udalerriekin batera ari da lanean, hurrengo bost urteetan zerbitzuaren kudeaketa arautuko duen dekretua lantzen. “Zenbait hobekuntza izango dituen arren, zerbitzua gehiago hobetzeko

UDAL-GOBERNUA

“Udalei egiten zaien ekarpena handitzea du helburu mozioak”

ekarpenak egin nahi ditugu”, azaldu zuen EH Bilduk ple-

noan.

Koalizio abertzalearen ustez, ikasleen garapen profesionala zein pertsonala ditu helburu Oinarrizko Lanbide Heziketak, eta horrek ezinbestean dakar integrazio soziala, ikasketen berreskurapena eta lan mun-

duan sartzeko bitartekoak eskaintzea. Udalek, horretarako, bitarteko ekonomiko gehigarriak jarri behar izaten ditu. “Bestela, ezingo genituzke helburu horiek bete”, EH Bilduren esanetan.

Udalei egiten zaien ekarpena handitzea du helburu mozioak, eta Oinarrizko Lanbide Heziketan aritzen diren profesionalen lan esperimentzia Lanbide Heziketako zentro publikoetako profesionalen berbera izatea.

EH Bildu eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zen mozioa. EAJk aldiz, abstentziora jo zuen, behin betiko dekretua ez delako oraindik argitaratu.

Haur Eskolaren zerbitzua esleitzeko prozesua abiatu da

Haur Eskolaren esleipena baimentzen duen plegua martxoaren 23ko plenoan onartu zen. Apirilaren 26ra bitarteko epea izango da eskaintzak aurkezteko.

2008. urtean esleitu zen lehenengo aldiz udal Haur Eskola zerbitzua, 12 urterako. “Iaz, Covid-19ak eragindako pandemia medio, urtebeteko luzapena onartu zuten ekaineko osoko bilkuran, eta, beraz, esleipen berria egokitzen da aurten”, udal iturriek aditzera eman dutenez. Martxoaren 23an eman zuten horretarako pausoa, pleguak onartuta.

Deialdi berriak zenbait aldaketa barnebildu ditu. Batetik, esleipenaren iraupena. “Egungo egoeraren aldakortasuna kontuan hartuta, esleipena bost urterako izatea adostu dute: 3 urterako lehenengo, 2 urte gehiagoz luzatzeko aukerarekin”, Udalak aditzera eman duenez.



Esleipenaren oinarriak eman dituzte argitara. Eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 26ra artekoa izango da.

Ekarpena, ume kopuruaren arabera

Bestetik, Udalak egin beharretako ekarpen ekonomikoa zehazteko irizpideak ere aldatu egin dituzte, udal kontuhartzaileak egindako txosten bat oinarri hartuta. “Horren arabera, udal haur eskola zerbitzua bideragarria da, nahiz eta erabiltzaile kopuruan gorabeherak izan diren hamabi urteotan”. 2008an, 140 ume egotera iritsi ziren. Gaur egun, 38 haurren aterpe

da Haur Eskola. Horregatik, udal ekarpena aldakorra izatea adostu dute: ume kopuruaren arabera.

Udalaren ekarpena, zenbakitan

40-44 ume arteko ikasturtean, haur bakoitzeko 1.200 euroko ekarpena egingo du Udalak. Kopurua gutxituko balitz, eta ikasturtea 37-39 ume artean balego, ume bakoitzeko udal ekarpena 25 euro gehia-

gokoa izango da. Alderantziz, kopurua handituko balitz, ume bakoitzeko egingo duen ekarpena 25 euroan gutxituko da. “Gehieneko eta gutxieneko kopuruak ere ezarri dituzte”, udalak aditzera eman duenez. “Gutxienez 1.100 euroko ekarpena egingo du umeko (haur kopurua hazten bada); gehienez ere 1.300 euroko ekarpena egingo du (haur kopurua gutxitzen bada)”.

EAJk abstentziora jo zuen

EAJk ez zuen mozioa babestu. Haur eskola publikoaren aldekoa dela argudiatu zuen alderdi jeltzaleak, eta Usurbilgoa Haurreskola Partzuergoaren sarearen barruan egotea nahiko lukeela. EH Bilduk harrituta hartu zuen argudioa, “udal Haur Eskola zerbitzua, hain zuzen, zerbitzu publikoa delako”.

Esleipenaren oinarriak jada argitaratu dituzte, eta eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 26ra bitartekoa izango da.

Apirileko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa



ARIES

Zure urtebetetzea bigarren urtez pandemia garaian ospatu beharko duzu.

Hileko aholkua: Aurten behintzat kalera ateratzeko aukera izango duzu... edo ez? Badaezpada ere, bizkotxo egiteko osagaiak erosi.



CANCER

Azken urtea gurutz-bidea izaten ari da zuretzat eta plan berriak egiteko premia larria duzu.

Hileko aholkua: Prozesio-garaia aprobetxatu eta egin turismo erlijioso. Eliza faltagatik ez da izango!



LIBRA

Zeharo makalduta zabilta pandemia garai honetan, eta beharrezkoa duzu bizitza soziala berreskuratzea.

Hileko aholkua: Mesedez, kalera atera eta ez pasa beste arratsalde bat labeari begira bizkotxo noiz igoko den zain!



CAPRICORNIUS

Aste Santuko oporrak erabili nahi dituzu gauza pila bat egiteko: egun-pasak egin, lagunekin egon, irakurri, mendira joan, serieak ikusi, etxea txukundu,...

Hileko aholkua: Ezer ez egitea ere gauza handia da!



TAURUS

"Usurbildarrek daukate, sagardo alkate..." dio kantuak, eta guztiz bat egiten duzu berarekin.

Hileko aholkua: Sagardogintzagatik egiten/edaten duzun guztia eskertu beharko lizuke Udalak.



LEO

Apirilean maitasun kontuak zure alde izango dituzu, baina ligatze-teknikak berri beharko dituzu.

Hileko aholkua: Pentsatu duzu Tinderren sartzea? Ez, ez da txokolatezko arrautza...



SCORPIUS

Zure bihotzeko azukre koxkorra EAetik kanpo bizi da eta faltan izugarri botatzen duzu ezin duzulako berarekin egon.

Hileko aholkua: Mugalari bat kontratatu beharko zenuke (begiratu iragarkien atalean).



AQUARIUS

Maiteminduta zaude baina ez dakizu nola adierazi zure kuttunari. Maitasun keinu handi bat egin behar duzu.

Hileko aholkua: Afaltzera gonbidatu eta utziozu zure gorringoan ogia bustitzen!



GEMINI

Pandemia honek pertsona hobe egin zaitu azken urtebete honetan.

Hileko gomendioa: Klean maskarillarekin inor ezagutzen ez duzunez, denek kasu egiten diezu. Jarraitu horrela!



VIRGO

Ilusioz zaude udaberriko oporren zain, askatasun egarri zaude eta.

Hileko aholkua: Badaezpada ere ganean kantineplora eraman, beharbada Oria ingurutik ezingo dugu urrundu eta!



SAGITARIUS

Udaberriko loreak bezala, bizipoza gainezka izango duzu hilabete honetan, eta horrek erakargarri egingo zaitu.

Hileko aholkua: Argi ibili, erlamando ugari izango dituzu eta inguruan!



PISCIS

Aspaldian lortu nahi zenuen hori lortuko duzu eta gero ez duzu jakingo zer egin. Plan bat behar duzu.

Hileko aholkua: Inoiz pentsatu duzu astrologia ikastea? Eroskopo hau idazten duenak oporretara joan nahiko luke eta ordezkotara bila dabilelako...

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

txirriStra

TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi

Patxi KNEA
jateixea


· bazkariak EGUNERO
· afariak. ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

%100 bertako sagarra

**OSTIRAL, LARUNBAT
ETA IGANDETAN IREKITA
(ERRESERBAREKIN)
osasun neurri guztiekin**

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

URDAIRA

Sagardotegia

**OSTEGUN, OSTIRAL,
LARUNBAT ETA
IGANDETAN irekita**

osasun neurri guztiekin
ERRESERBA EZAZU!

Aginaga 943 37 26 91



Freskagarri Naturala!

Sagardo berriak dasta
ditzakezue segurtasunez
gure sagardotegian!

Betiko Sagardoa

SAIZAR



SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



SAGARDOTEGIA
agínaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA

ASTELEHENETAN ITXITA

osasun neurri guztiegin

943 36 67 10



info@aginasagardotegia.com www.aginasagardotegia.com

GuraSOS: “Zaldibar Zubietara dator”

Hondamendia gertatu zen arte, industria-hondakin askoren helmuga Zaldibarko zaborte-gia zen. Hondakin horiek Zubietako erraustegian erre nahi dira orain. Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-ren Garapenerako sailburuak emandako baimenaren aurka errekurtsua jarri du GuraSOS-ek.

“GHK soilik hiri-hondakinak kudeatzeko gaitutako administrazio-erakundea da eta ez du beste hondakin mota batzuk kudeatzeko eskumenik”. GuraSOSen esanetan, Zubietako erraustegia ez da industria-hondakinak tratatzeko azpiegitura egokia. “Udal-hondakinak dira etxeko hondakinak eta beste iturri batzuetatik datozenak, hala nola txikizkako merkataritzatik, administrazioetik, hezkuntza-sektoretik, osasun-zerbitzuetatik, estatutik eta elikadura-zerbitzuetatik eta beren izaera eta osaeratik etxeko hondakinen antzekoak diren beste zerbitzu eta jardura batzuetatik datozenak”.

GuraSOSen idazkiak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/851 zuzentarauari egiten dio erreferentzia.



GuraSOSen esanetan, Zubietako erraustegia ez da industria-hondakinak tratatzeko azpiegitura egokia.

GURASOS

GuraSOSek aurkeztutako errekurtsuaren oinarri nagusiak hauek dira: GHK-k industria hondakinak kudeatzeko eskumenik ez izatea, Ingurumen Baimen Bateratua egokitu nahi izatea eta hori egiteko argudiorik ez ematea

Horren arabera, “baztertuta daude ekoizpenaren, nekaza-

ritzaren, basogintzaren, arrantzaren, eraikuntzaren eta erai-penaren hondakinak, eta hobi septikoak, estolderia-sarea eta tratamendu-plantak, eta halaber bizitza erabilgarriaren amaieran dauden ibilgailuak ere”.

Ingurumen Baimen Bateratuaren aldaketa

Zubietan industria-hondakinak erraustu ahal izateko, Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) egokitu nahi dute eta horre-

tarako Eusko Jaurlaritzaren oniritzia behar da. Aldaketa hori ez da txikikeria bat GuraSOSentzat. Aurkeztu duen errekurtsuan dioenez, “aldaketa funtsezkotzat joko da aldaketak isurketak eraldatzen edo handitzen dituenean, kutsatzaile berriak kopuru esanguratsuetan sartzen direnean, edota prozesuan substantzia edo prestakin arriskutsuak sartzen direnean, edo hondakin arriskutsuen sorrera areagotzen denean”.

“Plastikoen presentzia handitzeak emisio kutsatzaileak areagotuko ditu”

Europako Eonomia aholkularitza-agentziak egin berri duen txosten baten arabera, errausketak eta hondakin-isurketek berotegi efektuko gasen ugalketan eta airearen kalitatean eragin zuzena dute. GuraSOSek dioenez, “txosten horren arabera, erraustegieta-

ra iristen diren hondakin-hondarretan plastikoaren proportzioa gero eta handiagoa da, eta instalazio horien karbonoaren inpaktua handitzen ari da”.

GuraSOSek aurkeztu duen errekurtsuan honako hau jaso dator: “zuhurtasun-prin-

tzipioaren arabera, errekurtsu honen xede den aldaketaren bidez hondakin arriskutsuak sartuko dira, eta, horregatik, egitate horrek hondakinak errausteko instalazioaren funtzionamendua aldatzea dakar, hondakin arriskutsuak erraustea baitakar berekin, eta ho-

rrek funtsezko bihurtzen du aldaketa”.

Ontzien errefusetatik eta hondakin-industrialetatik datozen plastikoen presentzia handiagoak emisio kutsatzaileak areagotuko dituztela ziurtzat jotzen du GuraSOS elkarteak.

“Ikasketa prozesutik PBL garaia da gehien gustatzen zaidana”

Jon Ibisate Alday (Lasarte-Oria, 20 urte) Energiaren Ingeniaritza graduko 3. maila ikasten ari da Mondragon Goi Eskola Politeknikoan, Orona Ideo campusean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Jon Ibisate Alday: Nire ikasketak Landaberri ikastolan egin ditut, bai Derrigorrezko Hezkuntza eta baita Batxilergoa ere, baina azken hiru urte hauetan Mondragon Unibertsitateko Orona-Ideo campusean nabil Energiaren Ingeniaritza ikasten. Ikasketez gain, lagunekin kalean egotea edo gimnasia joatea gustatzen zait, baina nire zaletasun gustukoena errugbia da, non asteburuetan epaile gisa ibiltzen naizen, bai nazional (marrazain gisa) eta bai Euskadi mailan (epaile nagusia bezala) ere.

Zergatik aukeratu zenuen Energia gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?



“Mondragon Unibertsitateko Orona-Ideo campusean nabil Energiaren Ingeniaritza ikasten”.

JON IBISATE ALDAY

“Orona-Ideo campusa bisitatu ostean, argi eta garbi izan nuen hona etorri nahi nuela ikastera”

Energiaren kontzeptuak txikitatik erakarri nau; erakarri

eta intriga sortu, gehien bat energia berriztagarrien kontzeptuak.

Behin zer ikasi argi nuelarik, hurrengo galdera non zen, baina Mondragon Unibertsitateak Hernanin duen Orona-Ideo campusa bisitatu ostean argi eta garbi neukan hona etorri

nahi nuela.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia oso ona izan dela esango nuke, momentuz hemen bizitako guztiak ekarpen positiboak izan ditu.

“Gu geu gara gure planifikazioaren arduradun”

Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasketen metodologia?

Zerbait esanguratsua aipatzekotan, PBL metodologia azpimarratuko nuke. Seheleko bakoitza bi zatitan banatua dago, non zati handi batean klase normalak ematen diren, baina beste zatia

guztiz praktikoa dela. Zati honi PBL deritzo. Atal honetan, erronka bat proposatzen zaigu, eta guk talde txikitik erronka hori burutu beharra dugu eta graduan aurrera joan ahala, PBLak denbora eta pisu gehiago hartzen du.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait

hobetzeko?

Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana, PBL garaia dela esango nuke; izan ere ez daukagu ordutegi finkorik eta geu gara gure planifikazioaren arduradun.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Ikasketei dagokienez, gradua

amaitzerakoan master bat egitea gustatuko litzaidake, baina zertan? Ez dakit, oraindik urtebete daukat ongi pentsatzeko...

Alde pertsonalari erreparatuz, errugbiko epaile bezala jarraitzea gustatuko litzaidake, eta dena ondo badoa, egunen batean nazional mailara igotzea.

Rosa Zubeldia: “Askok ez dugu jakin hitanoa gure seme-alabei transmititzen”

Noka ikastaro praktikoa antolatu dute Etumeta Euskaltegiak eta Udalak apirilerako. Sei saio eskainiko dituzte hitanoa lantzeko, eta batez ere nokaren erabilera bultzatzeko. Rosa Zubeldia euskaltegiko irakaslea arduratuko da ikastaroa emateaz, eta xehetasun guztiak partekatu ditu NOAUA!rekin.

NOAUA! Hitanoa erakargarri egiten zaigu modu batera edo bestera, dela euskaldun zaharrek garelako, dela euskaldun berriak garelako. Hala ere, erabilerak urtetik urtera behera egiten du. Zein izan daiteke horren arrazoia?

Rosa Zubeldia: Nik uste transmisioak kale egin duela. Etxetako transmisioan dago gakoa, nire ustez. Hala ere, esan behar da guk euskara erakusteko erabiltzen ditugun liburu batzuetan hitanorik gabeko taulak ere ikusi izan ditudala. Egun, guraso garen askok ez dugu jakin hitanoa gure seme-alabei transmititzen. Guk, adibidez, kuadrilakook hika egiten diogu elkarri, neskei zein mutili, baina horietako gehienek



Rosa Zubeldiak gidatuko du noka ikastaroa. “Modu praktikoa lantzea da gure asmoa, hasieran teoria pixka bat eman eta ondoren ikasitakoa praktikatu dugu. Ordu eta erdiko sei saio izango dira”.

ROSA ZUBELDIA

“Kuadrilakook hika egiten diogu elkarri, baina gehienek ez diete seme-alabei transmititu”

seme-alabei ez diete transmititu, eta nik uste nahiko joera orokorra dela hori. Maila akademikoan ere, ikastoletan eta ikastetxeetan ez da erakusten,

eta erabili ere ez. Galera hori hasi zela esango nuke nik, eta gerora herritarrek joera hartu dute ez erabiltzeko.

Zuek euskaltegian hitanoa erakusten al diezue ikasleei?

Guk ez dugu hikako forma kentzen. Testu liburuetan oso gutxitan agertzen da, eta entzumenak egitean are eta gutxiago. Ikasleei deigarria egiten

zaie hikaren kontua, baina aldi berean ez dute oso ondo ulertzen zer den ere. Euskara oso maila baxutik ikasten hasten direnekin edota zuzenean zerotik hasten direnekin ez dugu lehen urte horietan hitanoa lantzen. Nahikoa izaten dute zuka ikasten. Gauza pila bat ikasten dituzte lehen urte horietan, eta hika sartzea gehiegizkoa da.

“Nokaren galera, neskei zuzentzeko erabiltzen den forma, are handiagoa da”

NOAUA! Apirilerako antolatu duzuen ikastaroak zein helburu ditu?

Rosa Zubeldia: Erabilera bultzatzea da ideia. Jende askok esaten du hika hitz egiten ez dakiela, eta nik hori sinesten dut, baina adin batetik gorako jendeak erabiltzen du. Orduan, ia herritar guztiek entzun dute noizbait edota egunerokotasunean. Zenbait esamolde ere modu naturalean erabiltzen ditugu: *noaua* edo *etorriai*...

arrotza ez da. Egia da, nokaren galera oraindik handiago izan dela, neskei zuzentzeko erabiltzen den forma, alegia. Toka gehiago erabiltzen da, baita gazteen artean ere. Arraroena da mutilek euren artean erabiltzen duten zerbait dela, baina neskekin zuka egiten dute. Mutilen arteko erabilera duen hizkera bihurtzen ari da. Hala ere, deigarria da noizean behin, nahi gabe edo nahita, neska bati hika egiten diotenean toka

egiten diotela, hau da mutilaren trataerarekin. Oso kurioa da, baina ziur aski mutil horiek noka ere jakin jakingo dute modu inkontzienteago batean. Aurreiritzi baten ondorio izan daiteke joera hau. Emakumeak maila jasoagoarekin lotzeko nahia edo beharra izan liteke, eta uste hori transmititu egiten da.

Zer landuko duzue ikastaroan? Gramatika modu gordi-

nean edota praktikoago egingo al duzue?

Ikuspuntu teorikoa aztertu beharra daukagu, hitanoa aditz forma jakin bat da, eta erabili ahal izateko ezagutu egin behar da. Modu praktikoa lantzea da gure asmoa, hasieran teoria pixka bat eman eta ondoren ikasitakoa praktikatu dugu. Ordu eta erdiko sei saio izango dira, eta denbora horretan bi alderdiak lantzeko denbora izango dugu.

“Gehienez ere 16 pertsona izango dira talde bakoitzean”

NOAUA! Nori zuzendutako ikastaroa da, euskaldun zaharrei edo euskaldun berriei?

Herritar guztientzat irekita dagoen zerbait da, eta nokari garrantzia berezia eman nahi badiogu ere, ez dago emakumeei bakarrik zuzenduta. Denentzat irekita egonda ere, nik espero dudun profila emakumezko euskaldun zaharrarena da.

Izen-ematea nola egin beharko da, eta zenbatentzat egongo da lekua?

Gehienez 16 pertsona izango dira talde bakoitzean. Bi txanda izango dira astero, ostegunetan arratsaldeko 18:00etatik aurrera eta larunbatetan 10:00etatik aurrera. Izena emateko mezu bat bidali beharko da itzultzaile@usurbil.eus helbidera.

Ikastaro isolatua izango da, edo gerora gisa honetako ikastaroak antolatzea aurreikus-ten duzue?

Udalarekin harremantzen hasi ginenean ikastaro hau sortzeko, asmoa adierazi ziguten, eta guk ere adierazi genien



Martxoaren 28an Korrikaren aldeko ekitaldia egin zen frontoian eta, besteak beste, lekukoaren barruko mezuaren berri eman zuten. Itoitz Rodriguezek irakurri zuen jendaurrean eta datu argigarri bat eman zuen: 2022ko Korrika martxoaren 31tik apirilaren 10era egingo da.

ROSA ZUBELDIA

“Bi txanda izango dira astero, ostegunetan arratsaldeko 18:00etatik aurrera eta larunbatetan 10:00etatik aurrera”

datorren kurtsotik aurrera zerbait egiteko asmoa, baina ez

daukagu ezer finkatuta. Orain- go ikastaroa proba bat izango da ikusteko ea jendeak interesez hartzen duen, sei saio nahikoa diren eta abar. Funtzionatzen badu, eta aurrera begira eskaerak baldin badaude ez dugu baztertzen saio gehiago eskaintzea. Ea jendea animatzen den ikastaroan parte

hartzera, eta ez hori bakarrik, gerora erabiltzeko asmoa izan behar du. Gure asmoa ez da maila teorikoa eman eta hortxe amaitzea kontua.

Izen-ematea

Mezu bat bidali beharko da helbide elektroniko honetara: itzultzailea@usurbil.eus

Oinarrizko euskara klaseak antolatu dituzte jubilatuentzat

Euskara ikasterik izan ez zuten jubilatuentzako, euskara klaseak antolatu ditu Udalak. Ordu eta erdiko hamabi saio izango dira. Gure Pakea elkartearen eman behar da izena, goizeko 10:00etatik 12:00etara bitartean.

Hamabost laguntzako lekua dago ikastaroan, eta izena eman ahala beteko dira plazak. Ordu eta erdiko hamabi saio izango dira guztira.

Hainbat helburu izango ditu ikastaroak: eguneroko egoera errazetan euskara ulertzeko gai izatea; egune-

rokoan erabiltzen diren esaldi eta esamoldeak ulertzea; euskarara hurbiltzea, aurrera begira ikasten jarrai dezaten; oinarrizko edukiak ezagutzea. Hala, agurrak, elkarrizketa hasierak eta bukaerak, elkarrizketa laburrak, aginduak, esamoldeak eta kontaktak landuko dituzte, baita oinarrizko lexikoa (orduak, hilabeteak, zenbakiak...) eta norberaren inguruko datuak ere (bizilekua, intereseko lekua, familia, enpresa...).

Emuneko Xabier Apaolaza Etxeberrria izango da irakaslea.

Udal dirulaguntzak eskatzeko garaia

2021ko udal diru laguntzen oinarriak apirilaren 7an eman zituzten argitara Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Deialdi honen bitartez, Gizarte-Ingizitatea, Ingurumena, Kirola, Kultura eta Nekazaritza-Abeltzaintza udal sailei lotutako egitasmoak sustatuko dira.

Oinarriak, sarean kontsultagai

Elkarte, erakunde zein norbanakoek Usurbilen hainbat alorretan egin asmo dituzten ekimenak sustatzeko, dirulaguntzen deialdia arautzen dituen oinarriak apirilaren 7ko Gipuzkoako Aldizka-



Oinarriak helbide honetan eskura daitezke: labur.eus/4RZiF

ri Ofizialean edota Udalaren web orrian eskura ditzakezue: www.usurbil.eus/eu/dirulaguntzak helbidean.

Eskaerak aurkezteko azken eguna: maiatzak 5

Dirulaguntzak eskatzeko epea maiatzaren 5ean asteazkena amaituko da.

Udajolaserako izen-ematea astelehenean hasiko da

Udajolas euskarazko udaleku irekia da eta Usurbilen erroldatu-tako 4-12 urte bitarteko gaztetxoek zuzendua dago (HH3-LH6). Aurten, uztailaren 5an hasi eta 30era arte luzatuko da. Astelehenetik ostiralera, goizeko 9:30etik 13:30era.

Udajolasen helburua Usurbilgo haurrei zein gaztetxoek euskarazko aisialdi eskaintza egokia bermatzea da, hezitzailea eta balio egokietan oinarritua.

Apirilaren 30ean amaituko da izen-ematea

Apirilaren 19an hasi eta apirilaren 30ean amaituko da Udajolasen izena emateko epea. Epea kanpoko izen-ematerik ez da onartuko.

Begirale edo zuzendari aritzeko lan-poltsa

Udajolas udaleku irekian lanean aritzeko zuzendari eta



Aurten, uztailaren 5an hasi eta 30era arte luzatuko da. Astelehenetik ostiralera, goizeko 9:30etik 13:30era.

IZEN-EMATEA

“Apirilaren 30ean amaituko da. Epea kanpoko izen-ematerik ez da onartuko”

begiraleen lan-poltsa osatu nahi da.

Baldintzak:

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, hauek dira bete beharreko baldintzak:

- 2 hilabeteko esperientzia.
- Begirale titulua izatea / Zuzendari titulua izatea.
- EGA edo baliokidea den agiri.

■ Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

■ Usurbildarrek izango dute lehentasuna.

■ Curriculum-ak eta agiriak apirilaren 24a baino lehen bidali behar dira helbide honetara: elkartea@noaua.eus

Udajolas 2021, jakin beharrekoak

Izena emateko epea:

Apirilak 19etik apirilak 30era (biak barne).

Internetez:

<https://noaua.eus/bereziak/udajolas-2021>

Kuota:

85 euro. Familia ugaria: 69.

Ordainketa:

Laboral Kutxako kontu hone-

tan egin behar da, eta garrantzitsua da UDAJOLAS eta haurren izen-abizenak adieraztea. ES28 3035 0140 34 1400025811 (Usurbilgo Udaleku kontua).

Plazak:

Gehieneko plaza-kopurua: 200.

Aurkeztu beharrekoa:

Izena ematerakoan, dokumentuok bidali behar dira elkartea@noaua.eus helbidera:

■ Ordainketa agiria.

■ Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia.

■ Familia ugarien kasuan, familia ugarien txartela edo familia liburuaren kopia.

Oharrak:

■ Apirilaren 30a izango da izena emateko azken eguna. Epea kanpoko izen ematerik ez da onartuko.

■ Informazio gehiago elkar-

tea@noaua.eus helbidean edo 688807336 telefono zenbakira deituz.

■ Guraso-bilera egiterik bada, ekainaren 15an astearte egingo da Sutegin, arratsaldeko 17:00etan.

■ Koronabirusa tarteko, Udajolas egiterik izango den edo ez bermerik ez daukagu. Hori dela eta, izen-ematea egin ondoren udalekuak ezin badira egin, diruaren %100 itzuliko da.

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
628 45 78 39
reformasmonroy@hotmail.es
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

Zuen
publizitatea
hemen
☎ **943 360 321**
publizitatea@noaua.eus

Patxi Bisquert Potxoenean izango da datorren astean

Pello Mari Otaño bertso-lariaren inguruko film bat egin nahi dute. Auzolanean gauzatu nahi denez, herriz herri ari dira egitasmoa aurkezten. Apirilaren 20an, Patxi Bisquert aktorea Potxoenean hurbilduko da eta filmari buruzko hainbat xehetasun eskainiko ditu.

Pello Mari Otaño bertso-lariaren bizimodua, egokitu zitzaion garai historikoa eta haren lana bildu nahi dituzte 'Ombuaren itzala' filman. Patxi Bisquert aktorea da ekimen honen bultzatzaile nagusia eta inguruan ditu Zizurkilgo Teodoro Hernandorena Kultur Taldeko kideak ere.

Herrigintzan oinarrituta

Bisquertek sortutako Eguzki Art ekoiztetxea dago ekimenaren atzean. Prentsa oharrean



Pello Mari Otañoren bizitza eta obraren berri emateko film bat egin nahi dute. Patxi Bisquert aktorea da sustatzaileetako bat.

'OMBUAREN ITZALA'

"Otaño bertsolariaren bizimodua eta ekarpena jaso nahi dute film batean"

azaldu duenez, "Eguzki Art Zinemak urteak daramatza

'Ombuaren Itzala' filma gauzatzeko ahaleginean. Hainbat oztipo eta zailtasunen artean, aurrera doa proiektua, Pello Mari Otañoren bizitza eta obra, ahanzturatik aldentuz, geure memoria kolektiboan txertaturik iraun dezan".

Herrigintzan oinarritu dute

filmaren ekimena eta auzolanean lortu nahi dute filma egiteko beharrezkoa den dirua: "Herrigintzan sortzen eta lortzen baitira proiektu bizigarriak, erakunde eta plataforma handien babesik gabe".

Apirilaren 20an, 18:30etik aurrera Potxoenean

"Bertsolari-poeta handia izan zen Pello Mari Otaño", diote Eguzki Art ekoiztetxeok. Baina hari buruzko film bat osatzea "ez da merkea, diru asko behar da. Horretarako, eta herrigintzan konfiantza osoa dugunez, auzolana erabiliko dugu diru bilketa hori lortzeko". Proiektuaren nondik norakoak kontatzeko, Patxi Bisquert hurbilduko da Potxoenean.

Apirilaren 20an asteartea, arratsaldeko 18:30ean Potxoenean.



ORIARTE

Institutua

**ON-LINE /
IKASTETXEAN**
Apirilaren 12tik 23ra

*Pertsonengan
errotutako egitasmoa:
ikaslearen garapen
integrala ardatz*

**2021-2022
ikasturtea**

BATXILERGOA

✓ Zientziak eta
Teknologia

✓ Giza eta
Gizarte Zientziak



Publikoa

943 89 94 94 943 89 94 92 www.oriarte.eus

Tranpaldoa, dantzarako prest

Apirilaren 24an ospatuko da IX. Dantza Eguna, baina aurretik eta ondoren ekitaldi gehiago izango dira. Hauxe da Orbeldi Dantza Taldeak prestatu duen egitaraua.

Apirilak 23 ostirala **“Dantza eta generoa” hitzaldia,** **Oier Araolazaren eskutik**

Mikel Laboa EHU Katedraren bitartez doktore-tesia egin berri du: “Genero identitatea euskal dantza tradizionalaren erai-kuntzan”.

Oier Araolazaren hitzaldia apirilaren 23an ostirala izango da. 19:00etan, Sutegin.

Apirilak 24 larunbata **“Tranpaldo irekia” emanaldia,** **16:30ean Artzabalen**

“Herri guztiari dantzatzeko aukera eman nahi diogu, mikrofono irekia emanaldien estiloan”, Orbeldikoek aditzera eman dutenez. 2013an edo lehenago jaiotakoei zuzendua dago eta gehienez ere sei lagunekoa taldetan aritu beharko dute. “Norberari gehien gustatzen zaion dantza estiloan koreografia bat aurkezteko oholtza eskainiko dugu”.

Aurretik izena eman beharko da usurbildantzan@gmail.com helbidera idatzita. Emailean taldearen izena eta partehartzaileen izen-abizenak zehaztu



Ekitaldi guztietarako sarrerak usurbilkultura.eus plataformatik eskura daitezke.

APIRILAK 18, AGINAGAN

“Sorotan Beleren kantekin ikuskizun bat sortu dute Orbeldikoek. Igande honetan entsegu irekia egingo dute. Eguerdiko 12:00etan Aginanako frontoian”

behar dira. “Tranpaldo irekian” izena emateko epea apirilaren 17an amaituko da.

Apirilak 24 larunbata
Orbeldiren dantza ikuskizuna,
19:30ean Oiardo kiroldegian
Urtero legez, “herriko musikariek batera ikuskizun bat eskainiko dugu. Aurten, Sorotan Beleren musika oinarri hartuta 50 minutuko emanaldia osatuko dugu”, Orbeldiko kideek aditzera eman dutenez. Apirilaren 24an larunbata, Oiardo kiroldegian. Astebete lehenago entsegu irekia egingo dute: apirilaren 18an igandea, 12:00etan

Aginagako frontoian.

Apirilak 25 igandea
‘Mutu’ ikuskizuna Sutegin
Apirilaren 25ean igandea, Miriam Perez Cazabonen konpainiak ‘Mutu’ ikuskizuna eskainiko du. Arratsaldeko 18:00etan Sutegin.

Sarrerak
Ekitaldi hauetarako sarrerak usurbilkultura.eus plataformatik eskuratu ahal izango dira.



Rukula taldea Sutegiko auditorioan aritu zen aurreko ostiralean. Sarrerak agortuta, Sutegiko edukiera bete zuen talde usurbildarrak. Giro ederra sortu zuten, eta askoren opor osteko itzulera gozatu ere bai.



Buruntzaldeko Ernaik Usurbilen antolatu zuen Independentzia Eguna. Dozenaka lagun bildu ziren joan den larunbatean goizeko zein arratsaldeko ekitaldietan.

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas

2021
udaleku irekiak

IZEN-EMATEA ONLINE EGIN BEHAR DA

Udajolas Usurbilen erroldatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago. Uztailaren 5ean hasi eta 30ean amaituko da, eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30

Gehieneko plaza kopurua 200 umekoa izango da.

Ordainketa LABORAL KUTXako kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da

UDAJOLAS eta HAURRAREN IZEN-ABIZENAK adieraztea:

ES28 3035 0140 34 1400025811
(Usurbilgo Udaleko kontua)

Izena emateko epea:

apirilak 19tik 30era (biak barne)

Kuota: 85€

Famili Ugaria: 69€ (Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia bidali behar da).

Izen-ematea egiteko lotura:

www.noaua.eus/bereziak/udajolas

Aurkeztu beharrekoa:

(elkartea@noaua.eus helbidera bidali)

- Ordainketa-agiria
- Gizarte segurantzako txartelaren kopia.
- Familia Ugarien kasuan: Familia Ugarien txartela edo Familia Liburuaren kopia

OHARRA: Apirilak 30 da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko. Informazio gehiago elkartea@noaua.eus helbidean edo 688807336 telefonoan. Guraso-bilera egiterik badago, ekainaren 15ean (asteartea) Sutegiko auditoriumean, 17:00etan. Izen-ematea egin ondoren udalekuak ezin badira egin, ordaindutakoaren %100 itzuliko da, betiere debeku edo itxialdiagatik bada.



“Gazteek ere izan beharko lukete 36ko gerran gertatukoaren berri”

36ko gerraren interesak elkartu ditu Aitor Azurki, Arantxa Manterola eta Xuban Zubiria, beste askoren artean. Hirurekin izan da NOAA!, egiten ari diren lana gertuagotik ezagutzeko.

NOAUA! Zerk bultzatu zintuzten proiektu honetan parte hartzea?

Aitor Azurki: 2007an Manuel Goenaga, gudari usurbildarra, elkarrizketatzeko aukera izan nuen. Liburu bat idazten ari nintzen momentu hartan, eta hantxe sartu nituen bere testigantzak, beste batzuenekin batera. Hara non, duela pare bat urte lagun batek harremanetan jarri gintuen Ion Martin eta biok liburu horren harira. Hark esan zidan 36ko gerrari buruzko lanketa txikiak egin zirela lehenagotik ere herrian, baina asko zegoela ikertzeko oraindik. Aitzol Arroyo eta biok beste proiektu batean genbiltzan garai hartan, eta Ion Martinek behin baino gehiagotan animatu gintuen Usurbilen proiektu honekin hastera. Proiektu bat aurkeztu genion Udalari orduan, eta horrelaxe iritsi gara honaino.

Arantxa Manterola: Guk duela 20 urte liburu bat landu genuen gai honi eta beste batzuei buruz. Hainbat alorretan Usur-



“Boluntariotza irekita daukagu adin eta profil guztietara”, azaldu digute Xuban Zubiriak, Arantxa Manterolak eta Aitor Azurkik.

XUBAN ZUBIRIA

“Aitortza merezi dute gerran egon ziren errepresialiatu horiek guztiek”

bilen bizi izandako errepresioa ardatz zuen liburua izan zen, 2002an plazaratua. 1972tik 2002ra bitartean gertatuak kontatu genituen, baina konturatu ginen dena ez zela orduan hasi, lehenagotik zetorren soka luze baten zatia baino ez zela. Beraz, 36ko gerratik ekin genion, eta lantzeko eman zigun apur hori landu genuen, orduan zer-

bait baino gehiago zena. Gudari batzuk oraindik bizirik bazeuden, eta hortik ekin genion, beti ere kontziente izanik hari batzuk zintzilik utzi genituela. Hala ere, orduan, gure helburua ez zen gerra hori sakonki lantzea ere. Aitzaga Elkartean ere egin genituen bi ekitaldi gerraren 70 eta 80. urteurrenetan. Gudari batzuekin izan ginen Manuel Goenaga tartean, eta Pello Aranburu. Hortik sortu zait interesa, garai hartan eginiko eta egiteke geratu ziren haietatik.

Xuban Zubiria: Nik Historia ikasi nuen bere garaian, eta ikuspegi

orokorrago batetik hartzen dut gaia. Egin izan diren memoria lanak badaude, eta aurreko legegintzaldian Txaldataxurreko indusketa lanak egin ziren, eta han topatutako aztarnetatik abiatuta ikusten genuen proiektu hau martxan jarri zutela, eta segida bat eman nahi diot lan horri. Memoriaz horrenbeste hitz egiten den garai hauetan, iruditzen zait aitortza merezi dutela gerran egon ziren errepresialiatu horiek guztiek, eta nik boluntarioki eta historian zaletua izanik, laguntza eman dezakedala iruditzen zait, beti ere aitortza lan hori egiteagatik.

“Aurreko belaunaldiarentzat oso gai tabua eta mingarria izan zen”

NOAUA! Belaunaldi gazteenek 36ko gerran gure lurretan gertatuak ezagutu ere ez dituzte egingo. Gazte horiek badute lekurik proiektu honetan?

Aitor Azurki: Boluntariotza irekita daukagu adin eta profil guztietara, baina benetan interesgarria deritzogu belaunaldi gazteek ere parte hartzea. Proiektuak fase asko ditu eta orain partehartze fasean jo eta

ke ari bagara ere, gerora gudalekuen berreskurapen fasean sartuko gara eta hor beste lanketa bat ere egongo da boluntarioen aldetik. 1937ko irailean faxistak herrian sartu ziren, eta gure asmoa da aurtengo irailean ekitaldiren bat egitea ahanzturan eror ez dadin, eta badago horri buruz zer kontatua ere.

Arantxa Manterola: Niri oso garrantzitsua iruditzen zait trans-

misioa egotea. 36ko gerra hasi zenean ni ez nintzen jaio ere. Gure aurreko belaunaldiarentzat oso gai tabua eta mingarria izan zen, eta oso isilean eramaten zen gaia zen etxe askotan. Oraindik ere, nahiko isilean daramate gaia askok. Ulertu behar da belaunaldi horiek transmisio hori ez egin izana. Jende soilak ere pairatu zituen hainbat egoera gogor,

eta hori kontatzen ez bada, badirudi sekula ez zela gertatu. Gertaera horiek, sufrimendu horiek, alderdi positibo horiek ateratzen ez badira galdu egiten dira, eta gu azkenean bide horren ondorengoak gara. Gazteek ere jakin beharko lukete garai haietan gertatua, eskubidea badute jakiteko eta betebeharra ere bai nondik gazozen jakiteko.

“Behin lana amaituta, erakusketa bat egingo dugu, baina gure asmoa haratago doa”

NOAUA! Abiapuntu interesgarriak dituzue herrian egin diren zenbait lan, baina baliabide nahikoa badaude hari horiei tiraka errealitatearen aurpegi anitzago bat lortzeko?

Aitor Azurki: Lan izugarria egin zuten Arantxak eta beste hainbat lagunek duela 20 urte, eta oraindik ere fresko dauka informazio guztia. Lan hori abiapuntu hartuta, orain arte miliziano askoren izenak lortu ditugu eta gertakari deigarri batzuk ere azalera atera ditugu. Oraindik lan asko dago egiteko eta informazio gehiago aterako da. Hastapen bat izan zen lan hura, eta oinarri horretatik mami gehiago ateratzen ari gara.

Lanaren azken emaitza zein euskarritan izango dugu esku-ragarri?

A. A: Behin lana amaituta erakusketa bat egingo dugu, baina asmoa da prozesua hor ez amaitzea. Udalarekin hitz egin beharko dugu lan horrek gerora zen forma hartuko duen erabakitzeke, agian liburu bat izango



Aitzol Arroyo, Ion Martin eta Aitor Azurki dokumentazio-lana egiten aritu dira orain arte, baina zeregin handiak daude aurretik eta boluntario gehiagoren laguntza beharko dute.

ARANTXA MANTEROLA

“Zenbat eta jende gehiago inplikatu lan honetan, jende gehiagorengana iristeko aukera dago”

da edo dokumental bat, baina hori erabakitzeke dago oraindik.

Noizko amaitzea aurreikusten duzue?

A. A: Askok atzeratzen ari da proiektua osasun egoera dela medio. Partehartze fasean gauden orain, eta ikerketa fasea ere itxi gabe daukagu orain. Salamancako artxibora joan beharko dugu oraindik ere partehartze fasean ateratako informazioa alderatzera, beraz, bi faseak batera doazela esan dezakegu. Espero dugu fase hauetan jarraitzea ekainera

arte edo, eta gero gudalekuen berreskurapen fasean sartuko ginateke. Asmoa da irailerako erakusketa egin ahal izatea, baina ez dakit iritsiko garen.

Arantxa Manterola: Salamanca-ra edozein momentuan joatea ere arazoa da azkenean, egoera guzti honen ondorioz. Hori guztia ere kontuan hartu behar da ulertzeko dena atzeratzen joan dela.

“Lana asko errazten du jendearen partehartzeak”

NOAUA! Zein puntutan dago oraintxe partehartze fasea?

Xuban Zubiria: Ni herriko eza-gunekin harremanetan jartzen ari naiz, gaiari buruzko informazioa dutenak saretu asmoz, nolabait. Dokumentuak, anekdotak edota denetariko informazioa baliogarri zaigu, eta bilaketa egiten ari naiz. Lortzen dudana apurra lantaldere kartzen dut gero, eta baloratu egiten dugu ea informazioa baliogarri zaigun edo ez. Herritarrek proiektuaren parte egitea beharrezkoa eta interesgarria deritzot. Udalean argi eta garbi geneukan proiektu hau auzolanean egin behar zela, eta

herriarentzat ere bai. Boluntariorik ezinbestekoa da gaiari ahalik eta zuku gehien ateratzeko eta lanak herriari eman dakiokena herriak jaso dezan.

Arantxa Manterola: Lana asko errazten du jendearen partehartzeak. Gertutasunak sortzen du ezagutza, eta beraz, zenbat eta jende gehiago inplikatu lan honetan, jende gehiagorengana iristeko aukera dago. Saretze lana ezinbestekoa da informazioa lortu ahal izateko. Duela urte batzuk egindako lan batean, baserri buruz argitaratu zen lan hartan ere informazio pila bat atera zen gai honi buruz. Baserriz baserri bertako

baserritarrekin eginiko elkarrizketetan bizipen pila bat lortu zuen Josu Tellabide. Lantaldean daukagu gainera.

Arantxa, zuk adin aldetik agian aukera gehiago izango duzu informazioa izan dezakeen jendearen gainean.

A.M: Ez pentsa. Sorpresa handiak hartu nituen duela 20 urte egin genuen lan horrekin. Gure gurasoei galdezka hasita zerbait lortzen genuen: halako etxeokak zera zioena, besteokak uste zuena pareko baserrikoek zerikusia izan zutena... Familia bertakoek ere sorpresak hartu zituzten. Orokorrean,

oso isilean eramaten zen gaia zen, eta gutxi batzuek etxean hitz egiten zuten, baina ez zuten kalean ezertxo ere esaten horri buruz. Denetariko sorpresak hartzen dira. Politak da horrelako bizipenen berri izatea, baina delikatua ere bai. Gerra zibil batean bi bando daude, eta horrek zauri larriak sortzen ditu. Batzuek ahaztu egin nahi izan dute dena, eta horretarako transmisioa erabat moztu zuten. Orduan, izenak ateratzen joaten dira pixkanaka eta jende askok sorpresak eraman ditu bere aitonak gerran parte hartu zuela ez zekiela eta abar.

Pandemiak utzi duena eta ekar lezakeena, aztergai

Usurbilgo Udalak eta Elhuyarrek hitzaldi-ziklo bat antolatu dute. Pandemiak gizartean izan duen eragina azaleratu nahi da solasaldi hauen bitartez. Hitzaldiak doakoak izango dira, baina Sutegira bertaratzeko aurrez izena eman beharko da, indarrean dauden edukiera-mugak direla eta.

Usurbilgo Udalen eta

Elhuyarren arteko lankidetzak

Usurbilgo Udala Elhuyarreko bazkide da, eta patronatuko kide. Ez da berria, beraz, bi erakundeen arteko lankidetzak eta harremana. Elkarlan horrek, besteak beste, euskararen normalkuntza eta zientziaren eta teknologiaren gizarteratzearen aldeko lana sustatzea ditu xede. Urterik urte, bi erakundeen artean zehazten da jarduera-programa batean, lankidetzak hori zer proiektu jakinetan gauzatuko den. Hala, aipatzekoak dira, besteren artean, Harria Hitz



COVID-19ak herritarren artean zientziaren ezagutza zabaltzeko beharra inoiz baino ageriago jarri duen garaioan, lankidetzak esparru hori solasaldi-sorta baten bidez gauzatuko dute Udalak eta Elhuyarrek.

ELHUYAR SOLASALDIAK

“Hitzaldiak doakoak izango dira, baina Sutegira bertaratzeko aurrez izena eman beharko da”

ibilbiderako lankidetzak (Elhuyarrek Usurbilgo kultur ondarearen ezagutzeko ibilbidea modu

irigarrian egiteko teknologia jarri zuen), edota Pelaioenea eraikina Emakumeen Etxe eta auzo-ekipamendu gisa definitzeko prozesua bideratu izana elkarrekin.

Ezagutza zabaltzea

Covid-19ak herritarren artean zientziaren ezagutza zabaltze-

ko beharra inoiz baino ageriago jarri duen garaioan, lankidetzak esparru hori solasaldi-sorta baten bidez gauzatuko dute Udalak eta Elhuyarrek. Gizarte kritiko, aktibo eta berdinazalea lortzeko egiten du lan, besteak beste, Elhuyarrek, eta helburu horiek bere dituen, era berean, Usurbilgo Udalak.

Solasaldi denak Internetez jarraitu ahal izango dira

Apirilak 14 asteazkena: “Covid-19aren korapiloak deslotzen” hitzaldia

Ana Galarraga Aiestaran Elhuyarreko kideak “Covid-19aren korapiloak deslotzen” hitzaldia emango du apirilaren 14an, “pandemiari eta txertoei hainbat ikuspegi eta ertzetik begiratzuz”.

Apirilak 21asteazkena: Zaintza-eredua aztergai

Maite Santxo Castiellok eta Miren Aranguren Etxartek zaintzaren gaiari helduko diote apirilaren 21eko hitzaldian. Batetik, Matia fundazioa Usurbilgo Udalarekin lantzen ari den zaintza-ereduaren inguruko hausnarketa aletuko

du Santxok, eta Aranguren, berriz, Beterri-Buruntzaldean zaintzaren inguruan egin den azterketa aurkeztuko du.

Apirilak 28 asteazkena: Pentsamendu kritikoa hizpide

Agustin Arrieta Urtizberea EHuko filosofia irakasleak pentsamendu kritikoa izango du hizpide apirilaren 28ko solasaldian. Egungo gizartearen eraldaketa-prozesu azkar eta etengabea jasotzen dugun gehiegizko informazioa aztertzeke pentsamendu kritikoa garatzeko beharraz ariko da. Pentsamendu kritikoak lagunduta, informazio partzialen eta interesatuen inguruan eta ebidentzietan oinarritutako informazioa eraikitzeke premiaz

ariko da.

Maiatzak 5 asteazkena: Ekonomiaren berreraikuntza, ekologiatik

Maiatzaren 5ean, Covid-19aren ostean ekonomiaren berreraikuntza ekologikoaren aldeko hautu egin beharraz ariko dira Mirene Begiristain Zubillaga ekonomialaria eta Arturo Eloseggi Irurtia biologoa. Euskal Herriko laurhun zientzialarik baino gehiagok argitaratutako agiriaren sinatzaileak dira Begiristain zein Eloseggi.

Maiatzak 12 asteazkena:

Adimen artifiziala hizkuntzan Maiatzaren 12an, azken hitzaldian, Xabier Arregi Iparragirre EHuko irakasle eta IXA talde-

ko kideak eta Xabier Saralegi Urizar Elhuyarreko kideak adimen artifiziala hizkuntzan izango dute hizpide, eta, zehazki, landuko dute nola eman ikuspegi soziala gaiari.

Solasaldi denak Sutegin egingo dira

Solasaldi denak Sutegi egingo dira, 18:30ean hasita. Streaming bidez jarraitu ahal izango dira usurbilkultura.eus eta zientzia.eus atarietan. Hitzaldiak doakoki izango dira, baina Sutegira bertaratzeko aurrez izena eman beharko da, indarrean dauden edukiera-mugak direla eta.

Miriam Arrillaga, Emakumezkoen Larruzko Pilotako III. Txapelketan

Emakumezkoen Larruzko Pilotako III. Bizkaia Pileta Txapelketa larunbatean hasi zen, hamabi palistekin, eta horien artean izango da Miriam Arrillaga. Finala hilaren 30ean jokatu da eta EITBk emango du zuzenean.

Txapelketa apirilaren 10ean hasi zen Larrabetzuko pilotalekuan, bi partidarekin.

Miriam Arrillagaren debuta txapelketan

Larunbat honetan jokatu da txapelketako bigarren jardunaldia, 17:00etan, Bizkaia frontoian, bi partidarekin. Lehenengo partida Amaia Irazustabarrenak eta Miriam Arrillagak Uxue Agirresarobe eta Maialen Landajoren aurka



Miriam Arrillaga Bizkaia frontoian arituko da larunbat honetan.

jokatuko dute eta bigarrena, Miren Larrartek eta Itsaso Erasuk Udane Iturbe eta Olatz Zulaikaren aurka.

Hirugarren jardunaldia apirilaren 24an jokatu da Bizkaia frontoian. Lehen partida Nagore Martinek eta Leire Etxanizek jokatu dute Amaia Irazustabarrena eta Miriam Arrillaga-

ren aurka.

Finala, apirilaren 30ean

Hirugarren jardunaldiko bigarren partida Leire Galdosek eta Maider Mendizabalek Miren Larrarte eta Itsaso Erasuren aurka jokatu dute. Finala apirilaren 30ean izango da, 17:00etan, Bizkaia frontoian.



Zubietako bikotea nagusitu zen Joko Garbiko Gipuzkoako Txapelketan

Joko Garbiko Gipuzkoako Txapelketan Zubieta nagusitu zen. Oiarzungo Txost taldearen aurkako finalean 40-38 nagusitu ziren zubieta-rrak. Zorionak!

Argazkiak: Gipuzkoako Pilota Elkarteak.

Errigorako banaketa apirilaren 26ko astean egingo da

Aurreko urteko kanpainarekin alderatuta, %25ean handitu da herritarren eskaera. Produktu batzuk agortu egin direnez, ekoizpena handitu beharrean aurkitu dira. Arrazoi honengatik, Errigorako saskien banaketa astebetez atzeratu da. Usurbilen, apirilaren 27an, 28an eta 29an egingo da NOAUA!ko bulegoan.

30.000 pakete arroz eta pasta, 109.000 litro olio eta 245.000 ontzi kontserba. Uda-berriko kanpainak zenbaki hauek utzi ditu. Errigoratik



NOAUA!ko bazkideen artean bi saski zozkatu genituen eta hauek izan ziren sarituak: Maria Lizaso Azkonobieta eta Jose Mari Alduntzin Betelu (bere emazte Dioni Beraetxek jaso zuen saria). On egin!

aditzera eman dutenez, "8.200 gara". etxe baino gehiagotara iritsiko Errigorako sustatzaileak

harrituta bezain pozik daude. "Bidean hainbat produktu agortu zaizkigu eta, ase ezin dugun eskaera horri esker, orain ekoizpena handitzera goaz". Horretan ere, eredu izan nahi dute. "Ez dugu ekoizpena edozein modutan handituko. Eredu iraunkorren aldeko apustu garbia egingo dugu. Mila esker eta besarkada handia kanpaina hau posible egin duzuen guztioi".

Banaketa egunak

Apirilaren 27an, 28an eta 29an egingo da NOAUA!ko bulegoan.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-a k
egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Bizilagunek osatutako aholku batzorde bat eratzea proposatu du PSE-EEk

Patxi Suárez zinegotzi sozialistak proposamen bat luzatu zuen martxoko plenoan: bizilagunek osatutako aholku batzorde bat eratzea. Era honetan, udal jardueran modu aktiboagoan parte hartzeko aukera izango lukete.

“Herritarren partehartzea eskubide bat da eta demokrazia aberasten du”. Hitzok Patxi Suárez zinegotziarenak dira. Bizilagunen aholku batzordea partehartzea sustatzeko tresna litzateke. Udal ordezkari sozialistaren esanetan, usurbildarrak beti antolatu dira euren auzoetako bizi baldintzak hobetzeko. Kalezar eta Emakumeen Etxea eraikitzeke prozesua jarri zituen adibide gisa.

Auzo elkarteek eta bestelako agenteek, herritarren kezka iturri diren gaien inguruko informazioa batu dezakete. Organo berriak kezka horiek



Batzorde berri honek ez luke eragingo jada martxan diren auzo ekimenen jardueran.

PATXI SUAREZ, PSE-EE
“Herritarren partehartzea eskubide bat da eta demokrazia aberasten du”

bideratzeko balio dezake, baita proposamenak luzatzeko ere.

Batzordea, elkargune
 Horretaz gain, bizilagunen aholku batzordea elkargune bilakatuko litzateke, auzo

guztiei eragiten dizkieten gai zehatzak landu ahal izateko: inbertsioak, mantenu-lanak edota jaien antolaketak. “Herritarren eskutik jasotako kexuen edo proposamenen segimendua egiteko ere balioko luke, baita eman beharreko erantzunak bideratzeko ere”.

Batzorde berri honek ez luke eragingo jada martxan diren auzo ekimenen jardueran. Dena den, eta honi lotuta, Patxi Suárezek proposamen bat

luzatu nahi dio udal gobernuari. Aholku batzorde berriari buruzko ordenantza erregulatzaille bat osatu dezala, “balizko gatazkak ekiditeko eta dinamika eraginkor bat errazteko”.

Aholku batzordearen funtzionamendua

Zer nolako funtzionamendua izango luke organo berri honek? Zinegotzi sozialistak hainbat proposamen luzatu zituen martxoko plenoan. Foro berri honen bilerak al-dizkakoak izan behar dute. Urtean bitan elkartzea egoki ikusten du, baina beharrezkoa ikusiko balitz, ezohiko bilerak antolatzeke aukera egongo litzateke.

Auzo elkarteek funtsezko tokia izango lukete batzorde berrian, baina bestelako elkarteek eta ordezkaritza duten alderdi politikoek ere bertan partehartzeko aukera izan beharko luketela uste du Patxi Suárezek.

Urbilek ‘Jatorria’ proiektua aurkeztu du

‘Jatorria’ egitasmoaren bitartez, Urbilek ekarpen bat egin nahi dio gizarteari, merkataritza-guneak bere ingurunean duen garrantzia azpimarratuz. Gisa honetara, Urbilek elkarlaneko ekimenen bultzatzaile bihurtu nahi du: elikagaien bilketa, tokiko merkatuaren sustapena... Jasangarritasunean eragina duten ekintzez gain, energia-eraginkortasuna areagotzea edo hondakinen aro-betxamendua, berrerabilpena

eta birziklapena sustatzea ditu helburu.

Gauzak aldatzeko borondatea
 “Jatorria, gauzak aldatzeko dugun borondatearen ikur da, eta aldi berean, hori ahalbidetzen digun tresna. Guztiok eta guztiontzat osatutako proiektua da, gure baitan hasten den egokitzapen arduratsu baten hasiera, etorkizunera iristeko. Aldaketa handi baten abiapuntu bihurtu nahi dugu-

lako”, adierazi du Javier Colorado Urbileko zuzendariak, zeinak hau lortzeko, denen parte-hartzea bultzatu nahi duen.

Urbil “Planetaren Ordua” ekimenera batu zen
 “Planetaren Ordua” mundu mailako ekimena babes-tu zuen Urbilek World Wide Fund For Nature ingurumen-politiken baitan. Martxoko azken larunbatean,



“Jatorria, gauzak aldatzeko dugun borondatearen ikur da”, dio Urbilek.

20:30etik 21:30era, gailu elektrikoaren borondatezko ordubeteko itzalaldia egin zuten.

Josue
Igeltseritza
 ☎ 606 37 21 05
 Atallu pol.28 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
 ASTEARTETIK-LARUNBATERA
 8:30-13:30
 EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
 650 31 31 91 USURBIL

EROSKI/city
 kale Nagusia 10, USURBIL
 943 361182

Uraitz, s.l.
 Igeltseritza Orokorra
 693 059 392
 uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Garbiketa lanak egiteko edo

pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

Erizaina, pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo externa moduan. 610827729 / 610346085

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan

bila nabil. Profesionalitate ziurtagiria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Familia kargarik ez duen mutil arduratsua, helduen zaintza lanetan aritzeko. Egun osoz edo orduka. Berehalako disponibilitatea. 697820143

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

BESTELAKOAK

Sagararak txikitzeo egurrezko makina bolantearekin salgai. 678082127 (Aitor)

Sukaldeko Ekonomia oso egoera onean saltzen dut, gutxi erabilia. 678082127 (Aitor)

Potxoenea aurreko petrilean, mahaian ondoan, betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Udaltzainetan utzi ditut.

Bose markako 2 bafle (Studio-craft 300ST) salgai. 80 euro. 3 biakoak, 15-60W. 85dB sentsibilitatea. 660981256 (Izaskun) 620857468 (Emilio).

Technics SB-C57 bi bafle salgai. 80 euro. 3 biakoak, 80W. 660981256 (Izaskun) 620857468 (Emilio).

Salgai termomix mod TM 31 oso berria 618094968

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbategi: 9:00-13:00.

**Zorionak Egoi!**

Zorionak etxekoan partez eta muxu handi bat.

**Zorionak Uxune!**

Apirilaren 6an 7 urte bete zituen gure neskamotzak! Zorionak eta muxu potolo bana etxekoan partez!

**Zorionak Eider eta Aratz!**

Aratzek apirilaren 10ean eta Eiderrek 15ean egingo dituzue urteak!! Zorionak eta muxu potolo bana familia guztiaren partez!! Ondo pasa!

**Zorionak Mare!**

Apirilaren 18an zure eguna! 9 urte printzesa! Asko maite zaitugu. Muxu izugarria etxekoan partez!

Heriotzak

Francisco Mayoz Aizpurua

Martxoaren 25ean hil zen, 81 urterekin

**Heriotzak**

Gloria Otero Martinez

Apirilaren 4an hil zen, 58 urterekin

**Heriotzak**

Hermenegildo Plaza Urizar

Apirilaren 5ean hil zen, 87 urterekin

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 15 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 16 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 17 ORUE aizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 18 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 20 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 21 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 22 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 23 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 24 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 25 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda apirila

14 asteazkena

- **"COVID-19aren korapiloak deslotzen" hitzaldia.** 18:30ean Sutegin. Hizlaria: Ana Galarraga Aiestaran. Online jarraitu daiteke hitzaldia, usurbilkultura.eus eta zientzia.eus web orrialdeetan.

17 larunbata

- **Sagarrondotik sagardora.** 09:00-13:00 Potxoenean. Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondoren eskutik. Izen ematea: usurbilkultura.eus alkartasuna.eus 943 361 114 (Alkartasuna Kooperatiba).

18 igandea

- **Orbeldiren ikuskizun berriaren entsegu irekia.** 12:00etan Aginagako Ariztitxon. Izen-ematea doan, usurbilkultura.eus.
- **"Dardara" filma Sutegin.** 16:30 eta 19:00etan. Sarrera 6 euro, usurbilkultura.eus web orrialdean (19:00etako agortuta).

Berri Txarrak taldearen 'Dardara' filma ikusteko aukera bikoitza

Berri Txarrak taldearen *Dardara* filma ikusteko sarrerak berehala agortu ziren. Horren aurrean, bigarren proiektio bat antolatzea erabaki zen: egun berean, apirilak 18 igandea, arratsaldeko 16:30ean Sutegin. Lerro hauek idazterakoan, sarrerak batzuk geratzen ziren eskuragarri.

Dardara filmerako sarrerak 6 euro balio du eta usurbilkultura.eus web orrialdean erosi beharra dago.



Berri Txarrak taldeari buruzko dokumental bitan eskainiko da igande honetan Sutegin.

"Txerto emozionala" hitzaldia, Nerea Mendizabalen eskutik

Nerea Mendizabal psikopedagogoaren hitzaldietan konfiantza, poza, itxaropena eta maitasuna dira hizpide nagusi. Balio horiek ez galtzeko eta behar bezala pizteko giltzak ere eskaintzen ditu. Hitz-Ahok hitzaldi ziklo bat antolatu du Nerearekin eta azkena apirilaren 26koa izango da.

Hitzaldiak, online

Aurrekoak bezala, hitzaldi hau ere onli-

ne emango dute. Pantailatik jarraitu ahal izateko zehaztasun guztiak esteka honetan topatuko dituzue: udarregi.eus/eu/gurasoak/guraso-eskola

Apirilaren 26an astelehena

- Apirilak 26 astelehena, arratsaldeko 17:30ean. Gaztelaniaz.
- Antolatzailea: Hitz-Aho guraso elkar-tea.

Datozenak

Zinea, antzerkia eta musika, Jexux Artze Kultur Elkartearen eskutik 'Ane' filma

- Maiatzak 7 ostirala, 19:00 Sutegin.
- Zuzendaria: David Pérez Sañudo.
- Aktoreak: Patricia López Arnaiz, Mikel Losada eta Jone Laspiur.
- Sarrerak: 5 euro, www.usurbilkultura.eus webgunean.

'Konpromisoa' antzezlan

- Maiatzak 8 larunbata, 19:00 Sutegin.
- Zuzendaria: Begoña Bilbao.
- Aktoreak: Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Zuhaitz Gurrutxaga.
- Sarrerak: 10 euro, www.usurbilkultura.eus webgunean.

Basabi eta Kimu taldeen kontzertua

- Maiatzak 15 larunbata, 19:00 Sutegin.
- Sarrerak: 10 euro, www.usurbilkultura.eus webgunean.



Patricia Lopez Arnaizek emakumezko aktore onenaren saria eskuratu zuen Goya sarietan, Ane filmarengatik. Eta Jone Laspiurrek, aktore berri onenarena.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ETXETRESNEN
KONPONKETA-
SALMENTA
MARKA GUZTIAK

DESHUMIDIFIKADOREAK
ERE BAI !

645417665
xabier

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA



Osasun neurri guztiekin
zuen zerbitzura

-Astelehenetan itxita-

Larre-Gain Baserria, EREÑOTZU-HERNANI
Tel: 943 55 58 46 / 616 287 867



G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA



PISUA SALGAI


118 m2ko pisua Kale Nagusian.
3 gela, 2 bainugela,
Garajearekin.

-15.000€

688 739 733

Etxebeste Kalea 15, USURBIL g15usurbil@gmail.com

Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2020 urteari. NOAUA!
guztiak bildu eta 2020ko tapa eta
aurkibidearekin koadernatzeko garaia da.
Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea
doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen
dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek,
aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa
edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidea-
rengatik. Koadernatzea, Lizardin edota
Lauroken egin dezakezue. Hori bai,
koadernatzea berdin-berdin ordaindu
behar dute bazkideek eta bazkide ez
direnek.

ELHUYAR SOLASALDIAK

APIRILAREN 14tik - MAIATZAREN 12ra / 18:30ean
SUTEGIN (Usurbil) eta ONLINE (usurbilkultura.eus eta zientzia.eus)

Sutegirako beharrezkoa da izena ematea: usurbilkultura.eus

Apirilak 14, asteazkena

**COVID-19aren
korapiloak deslotzen**
Ana Galarraga Aiestaran



Apirilak 28, asteazkena

Pentsamendu kritikoa garatzen
Agustin Arrieta Urtizberea



Maiatzak 12, asteazkena

**Adimen artifiziala hizkuntzan:
nola eman ikuspegi soziala**
Xabier Arregi Iparragirre
eta Xabier Saralegi Urizar



Apirilak 21, asteazkena

**COVID-19aren osteko gizartea:
zaintzaren demokratizazioa**
Maite Santxo Castiello eta
Miren Aranguren Etxarte



Maiatzak 5, asteazkena

**Ekonomiaren berreraikuntza
ekologikoaren alde**
Mirene Begiristain Zubillaga
eta Arturo Eloseggi Irurtia



Antolatzaileak

elhuyar
ezagutuz aldatzea



Usurbilgo
Udala



Laguntzaileak

